

GIZARTERATZEA GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

ZIKLOKO IKASKETEN BALIOZKOTZEEN eta SALBUESPENEN ESKAERA, eta NOTEN LEKUALDATZEA

Kasu guztietan, eskaera egin aurretik moduluen matrikula egitea ezinbestekoa da.

- Sektoreko langileek: Lantokiko Prestakuntza moduluen (LP, praktikak) salbuespena eska dezakete. Baliozkotzea Leizaran BHIn eskatu behar da. Sektorean 365 egun arduraldi osoz **lan** egin izana (**langile autonomoek¹, borondatezkoek eta bekadunek² barne**) frogatu beharra dago. Horretarako dokumentazio hau aurkeztu behar da:
 - Sektoreko enpresen **lan-kontratua(k)³**.
 - **Lan-bizitzaren agiria**. Dokumentu hori Lan Ikuskaritzan eskatzen da. Donostian, Otamendi Anaiak kalea, 13 (Loiolako Erriberak auzoa). Telefonoa: 901-502050. Interneten bidez ere eska daiteke. Edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko⁴ edozein bulegotan.
- Beste ziklo bat egin duten ikasleek: Ziurtagiri akademiko ofiziala ekarri behar da.
 - LPO: Leizaran BHiko idazkaritzan eskatu behar da, eta baliozkotze osoa lortuko da. Salbuespena: **LOGSETik LOEko salbuespena ere idazkaritzan eskatzen da, baina ez da baliozkotze osoa lortuko**, honako agiriren bat ekartzen ez bada: OSALANek homologatutako “Lan-arriskuen prebentzioa”ren ikastaro baten 1. maila edo oinarritzkoa, edo “Lan-arriskuen prebentzioa” zikloaren titulua. Azken agiri hori aurkeztu ezean **Prebentzioa** gaiari dagozkion orduak jaso eta gaia gainditu beharko da LPOn baliozkotze osoa lortzeko.
 - Beste baliozkotze batzuk: Gizarte Trebetasunak modulua (Haur Hezkuntza zikloa), Gizarte esku-hartzearen metodologia modulua (Animazio Soziokulturala eta Turistikoa zikloa) eta profesionaltasun-ziurtagiriak. Leizaran BHiko idazkaritzan.
- Unibertsitate-ikasketak egin dituzten ikasleek: Baliozkotze horiek Leizaran BHIk Hezkuntza Ministerioan, Madrilen, eskatu behar ditu. Hori eskatzeko, aurrena, ikasleak dokumentu hauek ekarri beharko ditu idazkaritzara, ondoren institutuak Ministeriora bidaltzeko:
 - **Baliozkotze-eskaera idatzia** (*institutuan emango zaio inprimakia⁵ betetzeko*).
 - **Nortasun Agiriaren** fotokopia.
 - Baliozkotu nahi diren ikasketak egindako Unibertsitateko **ziurtagiri akademikoa**.
 - Unibertsitate-ikasketen **ikasketa-plana** eta zikloko moduluekin zerikusia duen irakasgai bakoitzaren **programa**. Horien **fotokopia konpultsatuak** eskatu behar ditu unibertsitatean ikasleak.
 - Baliozkotzea eskatzen den **zikloko matrikula** egina izanaren ziurtagiria.

Dokumentu horiek guztiak helbide honetara bidali behar ditu Leizaran BHIk:

MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
Subdirección General de Formación Profesional
Servicio de Ordenación Académica y Convalidaciones de FP
Calle Los Madrazo, 15-17; 1ª planta; oficina 101
28071-Madrid
Telefonoa: 917018000 / Luzapenak: 20707-20702-20704

¹ Ekarki beharreko dokumentuak: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren erregimen berezian altan egon deneko aldiak azalduz, egindako jardueren deskribapena eta zein alditan egin diren.

² Dagokion erakundeak idatzitako ziurtagirian honakoa azaldu beharko du: egindako jarduerak eta funtzioak, zein urtetan egin diren eta guztira zenbat ordu erabili diren.

³ Kontratu horietan azaltzen den lanpostuaren izenak ez badu sektorearekin zerikusirik, **enpresako zuzendariaren idazki bat** aurkeztu beharko da sektorearekin zerikusia duten zein **zeregin** bete dituen **zehaztuz**.

⁴ Tesorería General de la Seguridad Social.

⁵ 2002ko urtarrilaren 9ko (asteazkena) EAO/BOEko 1021. orrialdeko IV. eranskina.



LEIZARAN
INSTITUTUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA: SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Gizarte Integrazioa
Goi Mailako Zikloa
Ciclo Superior de
Integración Social



ikasLAN
Gipuzkoa